Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

**DEIALDIA, BARNE-IGOERA MURRIZTUAN OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKOA IRUÑEKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO OFIZIAL ADMINISTRARIAREN 25 PLAZA, GEHIENEZ ERE. IZENDAPENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu zuen 2026ko abuztuaren 24an egindako bilkuran:

Amaitu da Iruñeko Udaleko ofizial administrariaren 25 plaza barne-igoera murriztuan oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua. Hala, Giza Baliabideetako zuzendariak 2026ko otsailaren 23an emandako ebazpenaren bidez onetsitako deialdiarekin bat –2026ko 48. NAOn, martxoaren 6koan, argitaratua–, bat etorrita deialdiaren hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.6 artikuluan xedatutakoa, ERABAKITZEN DA:

1. Jarraian zerrendatzen diren izangaiak Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko ofizial administrariaren lanposturako izendatzea. Plazak jarraian xedatutakoaren arabera esleituko zaizkie:

| ABIZENAK ETA IZENA | ESLEITUTAKO PLAZA | EUSKARA | ARAUBIDE JURIDIKOA |
|---|---|---|---|
| AZKUNE ETXABARRI, KOLDOBIKA | 1-300100-209 | C1 | FUNTZIONARIOA |
| BIDEGAIN FAZZINI, CARLOS | 2-300100-2 | | LANEKOA |
| BRIONGOS MATEOS, YOLANDA | 1-300300-47 | | FUNTZIONARIOA |
| BURUSCO SALÓN, MARÍA ARANZAZU (1) | 300001-6 | | FUNTZIONARIOA |
| CUESTA ALCALÁ, ANA BELÉN | 1-300100-210 | | FUNTZIONARIOA |
| EGEA CASTÁN, JERUSALÉN | 1-300300-48 | | FUNTZIONARIOA |
| ELVIRA OTXANDORENA, MARÍA CRISTINA (2) | 300100 | | |
| FERNÁNDEZ LÓPEZ, FRANCISCO JAVIER | 1-300100-212 | | FUNTZIONARIOA |
| GAINZA GAINZA, MARÍA PUY | 1-300100-213 | | FUNTZIONARIOA |
| GAMBRA SANZ, LEIRE | 1-300100-214 | C1 | FUNTZIONARIOA |
| GARCÍA CIFUENTES, GEMMA MONSERRAT | 1-300100-215 | | FUNTZIONARIOA |
| IEREGI MADOTZ, SARA | 1-300100-216 | | FUNTZIONARIOA |
| LATORRE HURTADO, PATXI XABIER (1) | 300001-7 | | FUNTZIONARIOA |
| MARTÍNEZ LARREA, VALENTINA (2) | 300100 | | |
| MORIONES OYAGA, MARÍA ESPERANZA | 2-300300-2 | | LANEKOA |

| ABIZENAK ETA IZENA | ESLEITUTAKO PLAZA | EUSKARA | ARAUBIDE JURIDIKOA |
|---|---|---|---|
| ORONOZ ZUBILLAGA, EDURNE | 1-300100-217 | | FUNTZIONARIOA |
| QUINTANILLA MARTÍNEZ, LUISA | 2-300100-3 | | LANEKOA |
| TABAR JURÍO, EVA | 1-300100-218 | | FUNTZIONARIOA |
| URIARTE ESLAVA, GEMA | 1-300100-219 | | FUNTZIONARIOA |

(1) Hirigintza Gerentziako Erakunde Autonomoari atxikitako pertsona.
(2) Ofizial administrariaren plaza batera itzultzeko eskubidea eskuratu duen eszedentzia boluntarioan dagoen pertsona

Izendatutako izangaiak C mailakoak izanen dira, lanpostuaren jabetza hartu eta egun horretatik aitzina, lehen betetzen zituzten plazak automatikoki amortizatuta.

Maila-igoera honetan parte hartzeak ez du ekarriko, inongo kasutan, igoera egin aurretik langileak zuen araubide juridikoa (funtzionarioena edo lan-araubidekoa) aldatzea.

2. Agintzea izendatutako izangaiek 2026ko irailaren 14an hartu beharko dutela plazen jabetza.

3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila.

Erabaki honen aurka honako errekurtso hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 24an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.